

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

2020. urtean euskara ikasteko ematen diren beken deialdia egiten duen Tokiko Gobernu Batzordearen erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 524732

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/524732>).

Lehenengoa. Onuradunak

Hamasei urte beteak dituzten eta 2019-2020 ikasturtea abian egon den bitartean Amurrion erroldatuta egon diren pertsona fisikoak, baita Amurrioko Udaleko langileak ere.

Bigarrena. Helburua

Deialdi honen helburua da Amurrioko biztanleek euskara ikas dezatela sustatzea xede duten laguntza ekonomikoak arautzea, norgehiagokako erregimenean.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Aurrekontu-gauzatzearen Udal-arauaren VII. kapituluan jasotako dirulaguntzen oinarri arautzaileak 2020ko ekainaren 19ko ALHAOn argitaratu ziren (31. oinarria). Euskara ikasteagatik ematen diren beken oinarriak arautzen dituen araua.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honetarako diru-hornidura 23.000 eurokoa da.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

2020ko urriaren 1etik 31ra.

Amurrion, 2020ko irailaren 22an

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA